

## **Balio Proposamena:**

### ❖ **Zer behar edo arazo konpontzen duzue?**

- Erromatar jatetxea eraikitzean gosea duen edozein pertsonari, erromatar-garaiko janari eta edari motak eskainiko diegu bezeroei. Azken finean gure helburua da alde batetik, gure bezeroak erromatar garaiko jatetxe batean ari direla jaten eta beste aldetik erosotasuna, kalitatea, ekonomia eta hurbiltasuna eskaintzen dugu.

#### ■ **Erosotasuna**

- Lehen esan dugun bezala, gure bezeroak iritsiko dira jatetxera gosez eta beraien nahiak asetzeko gai izango gara. Honekin esan nahi duguna da bezeroaren nahiak asetzeko hainbat era erabiliko dugu, eta benetako erromatar jatetxe batean dagoela sentiarazteaz aparte, bere etxean bezala sentiaraztea izango da gure helburu nagusia.


#### ■ **Ekonomia**

- Erabiliko ditugun materialak, beste jatetxeek erabiltzen dutenekin batera kompetenteak izango dira, ere kontuan hartuta erromatar garaiko giroa eman nahi diogu gure bezeroei. Egurrezko aukiak, mailak, kolore gorriko mahai-zapiak, batez ere, burdin-herdoilgaitzezko plater eta edalontziak, egurrezko edo ere herdoilgaitzezko koilarak eta sardexkak.



## ■ Kalitatea

- Gure produktuaren kalitatea bermatu nahi dugu eta lehenengo batxilergoko kurtsoan zehar lortzen dugun informazioari esker ekintzaileak izatea lortuko dugu.



## ■ Hurbiltasuna

- Azkenik, gure bezeroarekiko hurbiltasuna nahi dugu izan, hau da, gure bezeroak egin edo nahi dutenarekin adi egon nahi dugu eta bere nahiak asetzeko gai garela eskaini nahi diegu. Baina batez ere, gure bezeroak gure produktuari buruz dauzkaten ideiak edo iritziei arreta prestatu nahi diegu, ea beraien gustukoa izan ahal den, janaria ona edo txarra izan ahal den, esperientzia ona edo zerbait hobetzeko baldin badago, etab... Eta horrela gure bezeroaren nahiak asetzeko ekintzak egin ahal dezakegu, ala nola janaria hobeagoa egin eta produktu gehiago asmatu.



❖ **Zer bereizten zaitu eta, beraz, zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?**

- Gure janariak prezio arrazionalak izango lukete, gainera janaria ondo prestatuta eta bezero guztien gustura egokituko genuke gure jatetxea, esperientzia honena izan dezaten jateko orduan. Primerazko kalitatezko osagaiekin bazkal orduetan eta afarietan, esperientzia hobereana izan dadin, garaiko ikuskizunak eskainiko dugu.

